

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022

Finalari buruzko ohiko galderak

AUTOBUSAK

- **Gure kabuz antolatu dugu autobusa herrian? Zer egin behar dugu?**

Parkingak egoki antola ditzagun, Bertsozale Elkarteari jakinaraztea da eskatzen dizugun bakarra. Bi bide dituzu horretarako: bertsozale@bertsozale.eus helbidea edo (+34) 943694129 telefono zenbakia.

- **Umeek eta bazkideek txartel arrunta hartu behar dute?**

Bai, autobuseko txartela bakarra da, autobusean sartzen den edonork erosi beharrekoa.

- **Autobusean maskara beharrezkoa da?**

Garraio publiko guztietan bezala, autobusean ere beharrezkoa da.

- **Nondik eta zein ordutan abiatzen da nire autobusa?**

Bertsozale Elkarteak abenduaren 12an plazaratuko ditu autobus abiapuntu guztien geltokiak eta ordutegiak. www.bertsozale.eus atarian zein sare sozialetan argitaratuko da zerrenda, eta erosketa egindako emailean ere jasoko duzue informazioa.

- **Zerrendan ez dagoen herri batetik abiatu naiteke autobusean?**

Ez. Abiapuntuetatik bakarrik aterako dira autobusak.

- **Zerrendako herri batetik abiatu eta beste batera bueltatu naiteke?**

Ez, kudeaketa nabarmen zailtzen baitu.

- **Joateko bakarrik behar dut autobusa. Berdin ordaindu behar dut?**

Bai, kudeaketa nabarmen zailtzen baitu. Hori bai: joan-etorrikoa erosi eta joateko edo etortzeko bakarrik erabil daiteke zerbitzua.



- **Noiz iritsiko dira autobusak Iruñera?**

09:30 eta 10:00 bitartean iritsiko dira autobusak Iruñera.

- **Noiz irtengo dira autobusak Iruñetik?**

Finala amaitu eta ordu erdira irtengo dira autobusak Iruñetik.

- **Non hartu behar dugu bueltako autobusa Iruñean?**

Goizean utzi zaituen leku berean hartuko duzu autobusa. Erreferentzia gisa kontuan hartu autobus zenbakia.

- **Egunean zehar zerbait gertatzen bada zer egingo dugu?**

Abiapuntu guztietan izango da arduradun bat; bera izango da bertsozaleen eta antolakuntzaren arteko lotura.

NAFARROA ARENA

- **Noiz irekiko dira Nafarroa Arenako ateak?**

Goizean 09:00etan irekiko dira ateak, saioa hasi baino bi ordu lehenago. Arratsaldean 16:00etan irekiko dira, arratsaldeko saioa hasteko ordubete falta denean.

- **Ume jaioberri batekin jartzeko zein dira leku onenak pistan eta harmailan?**

Kontuan izan bertso saio bat dela. Ume txikirik ekartzekotan, pistan zein harmailan, ateetatik gertueneren jartzea litzateke onena, behar izatekotan azkar mugitu ahal izateko.

- **Sadarren bazkalduko dugu. Zer sartu dezakegu eta zer ez?**

Sadarren etxetik eramandakoak jateko aukera izango duzu. Goizean Nafarroa Arenara sartu ezin duzuna (botilak, kristalezko ontziak, labanak...) Sadarreko kontsignan utzi ahalko duzu, eta gero estadiora sartu. Dena dela, kontuan hartu Sadarren tabernak izango direla, beraz ez duzu zertan edaria etxetik ekarri.

- **Tabernarik egongo da?**

Bai. Nafarroa Arenan solairu guztietan izango dira; tabernan zaudela, zaindu zarata, faborez. Sadarren ere hainbat taberna izango dira, bazkaldu bitartean edaria hartu ahal izateko.



- **Goizean eta arratsaldean leku berean eseri behar dugu?**

Goizean eta arratsaldean leku berean esertzea gomendatzen dugu, baina Bertsozale Elkarteak ez da horrekin lotuta gerta daitezkeen gaizki-ultuen erantzule egingo. Bide beretik, antolakuntza ez da entzuleak lekua gordetzeko utz ditzakeen objektu pertsonalen arduradun egingo.

- **Harmailako eta pistako sarrerak ditugu lagunarte bereko jendeak. Nola egin dezakegu elkarrekin egoteko?**

Ez dago modurik; sarrera bakoitzak eremu baterako balio du, eta ez dago modurik batetik bestera pasatzeko.

- **Zein izango da ekitaldiaren ordutegia?**

- 09:00 Ateak zabaldu
- 11:00 Saioa hasi
- 14:30 Saioa amaitu (*aurreikuspena)
- 16:00 ateak zabaldu
- 17:00 saioa hasi
- 20:30 saioa amaitu (*aurreikuspena)

- **Pistan dut eserlekua. Nola irits naiteke informazio gunera?**

Saioa hasi aurretik, A ate ondoko leihatilan kokatuko da informazio gunera, eta kaletik joan daiteke bertaraino, arazorik gabe. Saioa hasita, A atearen barruan kokatuko da; pistatik joateko arazorik ez da izango, sarbide zuzen bat egongo baita horretarako.

- **Eta harmailan eserlekua izanda, haur txokora?**

Pista1 sarreratik sartu beharko da, langileentzat gordetako errai beretik. Behin umeak haur txokoran utzita, pistarako sarrerarik ez dutenek berriz atera beharko dute kalera, eta dagokien ateetatik sartu.



BAZKARIAK NUP

- **Umeek eta bazkideek txartel arrunta hartu behar dute?**

Autobusen kasuan bezala bazkarien kasuan ere ez dago bazkideen eta haurren txartelik.

- **Noiz hasiko da bazkaria? Eta noiz amaituko?**

14:30 aldera amaituko da goizeko saioa. Bazkaltiar guztiak iristera itxaron gabe iritsi ahala mahaian eseri eta lehen platera hasiko zarete. Zerbitzuak ordubete inguru iraungo du, beraz, ez duzue arazorik izango garaiz Nafarroa Arenara itzultzeko.

- **Zenbat distantzia dago Nafarroa Arenatik NUPeko kirol instalazioetara?**

400 metro inguru daude, aldaparik gabe; asko jota, 10 minutu beharko dituzu oinez.

- **Menu beganoa eta haragiduna toki ezberdinetan eskainiko da?**

Ez, mahai berean zerbitzatuko dira bi menuak.

- **Menuan aldaketaren bat eska dezakegu?**

Ez. Bazkari asko kudeatu behar ditugu eta kudeaketa errazteagatik hartu dugu erabakia.

BAZKARIAK SADAR

- **Sadarren sartzeko sarrera hartu behar da?**

Ez, ekitaldiko sarrera erakutsita, Sadarren sartzeko aukera izango duzu.

- **Zein ordutan sartu gaitzke Sadarrera eta noiz arte egon?**

14:30ak aldera amaituko da goizeko saioa. Ordurako irekita izango dira Sadarreko ateak, eta 16:30ak arte egoteko aukera izango duzue.

- **Nondik sartu behar dugu Sadarrera?**

18 eta 24 arteko ateak egongo dira irekita.

- **Urruti dago Sadar Nafarroa Arenatik?**



Bertan, elkarren ondoko eraikinak dira Nafarroa Arena eta Sadar; 50 metrora daude. Hori bai: Sadarreko gradetara igotzeko eskailerak igo behar dira; igogailua dago 24. atean.

- **Busti egingo gara Sadarren?**

Estalpea ziurtatuta dago, haizete handirik ez bada behintzat. Hori bai, arropa eraman, Sadar estadioa ez baita erabat estalia.

- **Sadarren zelaian mahaiaik jarriko dira edo gradetan jango dugu etxetik eramandakoa?**

Gradetan etxetik eramandako janaria jateko aukera izango da. Zelaia ezingo da zapaldu.

BAZKARIEN KONTSIGNA ZERBITZUA

- **Zein ordutegi du kontsignak?**

8:00etatik 16:30ak artean zabalik izango da, janaria uzteko eta jasotzeko.

- **Non dago kontsigna?**

Sadar estadioan bertan, 24 eta 25 ateen artean.

- **Taldean joango gara finalera. Kontsignara taldeko kide guztiok joan behar dugu?**

Ez, taldeko kide bat edo bi joanda aski, gauzak uzteko eroso prestatu dugu lekua. Beste taldekideek Nafarroa Arenara sartu eta lekua hartzeko aprobetxatu dezakete.

- **Etxetik eramandakoa diozuenean, edozer eraman dezakegu?**

Bai, ia edozer gauza. Janaria berotzeko bonbona eta surik ez, beste guztia sar daiteke kontsignan.

- **Zer egingo duzue Sadarren sortuko den zaborrarekin?**

Organikoa, plastikoa, kartoia, kristala eta errefuxa botatzeko kontenedoreak izango dira Sadarren. Mesedez, ingurumenari begirunez eta gainerako bertsozaleei errespetuz, baliatu edukiontziak tokia ahalik eta txukunen mantentzeko.

- **Arratsaldean kontsigna zerbitzua egongo al da?**

Ez. Behar konkreturen bat balego (labana bat, kortxo-kentzekoa... baina beti ere, objektu txikiak), gordeko lirateke horretarako prestatutako txoko batean.

